

~~HARREMAN ERROMANTIKOEN AURREAN~~ **MAITASUNA KOLEKTIBIZATU!**

Txikitatik esan digute zoriontsu izateko bikotea bilatu eta familia sortu behar genuela. Mezu hau etengabe errepikatzen digute, hamaika modu eta espaziotik (pelikulak, ipuinak, sare sozialak, familia, abestiak, eskola, kuadrilla, multinazionalen iragarkiak...).

Gaztaroko esperientzia beharren erdigunean amodio istorio bat kokatu digute, pasioz betea, azpimarratuz sentimendu hau geldiezina dela, “naturala” eta berrezkoak, beraz ezin dela deseraiki. Beti ere jakinda, etorkizunean, probetxuzko heldu izateko gure bizi proiektuari zentzua emango dion bikote hori topatu behar dugula.

Baina guk argi daukagu maitasun erromantikoa eraikuntza sozial bat dela. Sistema hetero-patriarkal kapitalista sostengatzeko beharrezkoak dira familia eredu nuklear, tradizional, heterosexual eta monogamoak, beraz, sistemarentzat maitasun erromantikoa ikaragarritzko tresna eraginkorra da, maitasun eredu hori idealizatu eta desiatu dezagun nahi du, joko arau guztiak onartu ditzagun, gu sistema-ren kontrolpean jarriz. Maitasun erromantikoaren ondorioz, erlazio toxikoak ditugu, menpekotasun rola erreproduzitzen ditugu eta gure behar afektiboak ez ditugu asetzen. Jeloskortasuna, autoestimu falta, intseguritatea gure bizitzaren parte bilakutzen dira.

Maitasun erromantikoaren logikan ditugu harremanek (bikote harremanek) erdigunea hartzen dute gazte askoren bizitzetan, harremanen arteko jerarkiak sortuz, lagunartean sortu daitezken harremanak bigarren plano batean kokatuz zein eredu tradizionaletik at kokatzen direnei balioa kenduz.

Guzti honetaz kontziente izanik deseraikitzeke lan handia daukagu aurretik. Femenismotik aspaldi esan genuen pertsonala politikoa zela, eta harreman pertsonalak politizatzen hasi behar gara, maitasuna politizatzen. Maitasun erromantikoarekin apurtu behar dugu, bikote heterosexual, monogamo eta indibidualista alde batera utziz, kolektiboan oinarritutako harreman eredu berriak eraikiz, kontzientzia komunitarioa hartuz eta gure bizi proiektuak bide horretan jarriz.

Ez da erronka txikia baina argi dugu beste bizi eredu bat posible dela, beste modu batzuetan maitatu dezakegula eta gure zein komunitatearen nahi eta beharrak erdigunean jarriko dituzten harremanak ereduak garatzeko prest gaudela. Maitasuna berdefinitzea, gure desirak berreraikitzea eta normala zaiguna zalantzan jartzea dagokigu, autozaintza eta elkarzaintza erdiguneratzeko sortzen ditugun harreman guztietan, gure inguruan harreman sare trinkoak sortuz, komunitate indartsuak eraikiz.

Beraz, maitasun erromantikoaren aurrean, maitasuna kolektibizatu!